



**Langileak: kontratazioak**

**Lan pilaketa edo errefortzua**  
**Teknikaria instalazio-azpiegitura- obra publikotarako**

**OINARRIAK**

**1.- Deialdiaren xedea**

Urola Kosta Udal Elkarteak behar du bere instalazio-azpiegituretan abian diren obretan lagunduko duen teknikari bat eta horretarako bitarteko funtzionario bat hautatuko du.

**2.- Lege oinarria eta beharraren justifikazioa**

Lege ikuspegitik, abenduaren 1eko 11/2022 legeak, 28.1.c) artikuluan " LAN PILAKETA" aurreikusi du, beharra eta presa dagoen egoeretarako. Horretan oinarrituta, lan pilaketa edo errefortzu arrazoiaztatik bitarteko funtzionario bat izendatu ahal izango da gehienez ere sei hilabeteko epealdirako.

Hautaketa-prozedurari dagokionez, bitarteko izaera duenez izendapenak, era arin eta azkar batean gauzatu behar da, 11/2022 legeak, 77.1 artikuluan, aurreikusi duenez, printzipio hauek bermatuz: berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna, publikotasuna eta lehia askea.

Beharraren justifikazioaren ikuspegitik, hainbat arrazoi eta interes publiko daude hautaketa hau abiatzeko.

Udal Elkartearen titularitateko hainbat instalaziotan abian diren obretan ( zabortegia eta Zarauzko garbigunea bereziki) izandako gertakarien ondorioz eta Eusko Jaurlaritzak eskatutako baldintza batzuk betetze aldera, zereginak areagotu egin dira eta errefortzu baten beharra antzeman da hondakin kudeaketa-ingurumen arloan.

Aurreko paragrafoan adierazitako egoerak direla karia, instalazio/azpiegituren "in situ" jarraipena maiztasun handiagoz burutu beharra dago eta gainera, erakunde publikoen aurrean eta obra-zuzendaritzekin harreman tekniko profesionala gertutik gauzatu beharko da.

Lanak asko hazi direnez gaur egun dagoen lan taldearekin aurrera eramatea ezinezkoa da.

**3.- Hautagaiek bete beharreko ezinbesteko baldintzak**



- Orokorrak: Administrazio publikoan lan egiteko baldintza orokorrak.
- Titulazioa: Ingenieritza zibileko gradua, obra publikoetako ingeneri Teknikoa edo antzekoak (arkitektura teknikoko gradua).
- Lan eskarmentua: urtebetez gutxienez lanean jardun izana instalazio/azpiegitura/obra publiko/zibilen arloan, Administrazio publikoan edota enpresa pribatuan.
- Euskara: 3. hizkuntz eskakizuna edo C1 egiaztatzea, gutxienez, egiaztatuta.

#### **4.- Bete beharreko lanpostuaren eta eskaintzaren ezaugarriak:**

**Lanpostua: Teknikaria, instalazio-azpiegitura- obra publikotarako.**

**Eskala:** Administrazio Berezia

**Sailkapen taldea:** A2

**Destino osagarria:** 21

**Osagarri espezifikoak:** 1.390,70.-euro/hilero

**Ordainsaria:** 3.217,67.- euro/ hilero; urtero ( 14 ordainketa): 45.047,38.-euro

**Ordutegia:** Normalean astelehenetik ostiralera, 7:30etatik 15:00etara. Noizean behin lanaldi zatitua zerbitzuaren beharretatik, bileraren bat egin behar bada.

**Lanaldia:** %100

**Eskaintzen den izendapena:** lan pilaketatik bitarteko funtzionario izendapena.

**Iraupena:** Sei hilabete

**Probaldia:** hautatuak 3 hilabeteko probaldia gainditu beharko du (11/2022 legearen 77.2 artikuluari jarraiki), horretarako, ezinbestekoa izanik eginkizunetara egokitzea, eraginkortasun profesionalaz eta errendimendu egokiz jardutea, zerbitzuarekiko jarrera ona izatea eta erantzukizuna bere gain hartzea, arduradunarekin eta lankideekin lankidetzaz eta elkarlanean aritzea, egoeretatik jabetu eta beraietarako moldagarritasuna erakustea. Horiek guztiak, 11/2022 legearen 76.7 artikulua ezarritako moduan, nabarmen behagarriak diren jokabideekin alderatuta balioetsiko ditu hondakin-kudeaketa-ingurumen arloburu arduradunak—txosten baten bitartez. Txosten hori, hautaketa-organo teknikoari bidali beharko dio, ontzat eman dezan.

#### **5.- Eginkizun nagusiak**

Orohar, Udal Elkartearen hondakin -ingurumen arloak kudeatzen dituen lau instalazio-azpiegituren inguruan dagoen lan pilatua izapidetzea. Bereziki, Urteta zabortegia eta Zarauzko garbigunean abian diren obretan laguntza eman.

Zeregin azpimarragarrienak aipatzearen:

.- instalazio/azpiegituren obren “in situ” jarraipena burutu.



.- Erakunde publikoen aurrean ( Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia, etab) izapidetzak bideratu, ikuspegi teknikoetik eta administratibotik ( beharrezko dokumentazioari dagokionez).

.- Obra-zuzendaritzekin harreman tekniko profesionala gertutik gauzatu.

## **6.- Hautaketa prozedura**

### **6.1.-Legezko oinarriak eta baldintzak**

11/2022 legearen 79.2 artikuluari jarraituz honakoak bete dira hautaketa hau bideratzeko:

- a) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna, independentzia eta diskrezionalitate teknikoa.
- b) Hizkuntza eskakizuna euskaraz
- c) Izangaien gaitasuna eta egokitasuna neurtzeko tresnen pertinentzia.
- d) Hautaketa-prozesuetako edukien eta deitutako plazetan bete beharreko zereginen arteko adostasuna.
- e) Hautaketa-prozesuen bizkortasuna
- f) Hautaketa-prozesuan hizkuntza ofizialetatik edozein erabili ahal izateko bermea.
- g) Enplegu publikora iristeko berdintasun-printzipioa.
- h) Gainerako izangaien dituzten baldintza beretan parte hartzea desgaitasunen bat duten pertsonen.

11/2022 legearen 77.5 artikuluari helduz, LANBIDE- Euskal enplegu zerbitzuan argitaratuko da lan eskaintza honen iragarkia.

Baldintzak betetzen dituen pertsona orok izen eman dezake eskaintza honetan LANBIDE bidez. **Hau da, titulazioa, urtebeteko gutxieneko lan eskarmentua obra publikoen arloan, Administrazio publikoan edota enpresa pribatuan, eta C1 euskararen gaitasun egiaztatzea.**

Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du: LANBIDEren CV ( NAN, titulazioa, euskararen ziurtagiria, gida baimena eta lan esperientzia egiaztatzen dituen).

### **6.2.-Hautaketa metodoa**

11/2022 legearen 80.2. artikuluko g) atala (curriculumaren azalpena) aintzat izanik burutuko da hautaketa.

Horretarako, aldeztu aurretik, LANBIDE bidez jasotako hautagaien curriculumak aztertuko dira eta eskatutako titulazio egokia, gutxieneko urtebeteko lan eskarmentua eta C1 euskara



maila egiaztatuta dutenen artean, **lan eskarmentu handiena duten bost (5) hautagaiei eskatuko zaie CURRICULUMAREN AZALPENA egitea eta ondoren, beren MEREZIMENDUEN BALORAZIOA burutuko da.**

### **6.2.1.- CURRICULUMUNAREN AZALPENA**

LANBIDEtik jasotako CVetatik, gutxieneko baldintzak betetzen dituztela bermatu eta gero, lan eskarmentu handien duten bost CVak aukeratuko dira, eta bost hautagai horiei Curriculumaren azalpena egiteko elkarrizketa -eguna eta ordua ematez jakinaraziko zaie. Elkarrizketa-saio hau grabatua izango da eta 20 minutuko iraupena izango du gehienez. Bertan, hautagaiek beren CVan azaldu beharko dute eta bereziki, azpimarratuko dute eskaintzen den lanpostuaren zereginekin lotutako lan esperientzia. Azalpenak euskaraz emango dira. Hautaketa-organo teknikoak argibideak eskatzeko edota zalantzak argitzeko aukera izango du, horretarako galderak euskaraz egingo direlarik.

Ondoren, merezimenduen balorazioa egingo du hautaketa organu teknikoak eta horretarako, lan eskarmentu gehigarria eta formazio saio osagarriak baloragai izango dira.

### **6.2.2.-MEREZIMENDUEN BALORAZIOA**

#### **A) Lan eskarmentu gehigarria**

Orohar, instalazio- azpiegitura-obra publikoekin edota bereziki, hondakin kudeaketa-ingurumen zerbitzuekin lotutako instalazio-azpiegitura-obra publikoekin zerikusia badu izango da kontuan hartua lan esperientzia. Bigarren lan eskarmentuak lehenetsia izango du. Beti ere, behar bezala egiaztatuta badago, dagokion ziurtagiri ofizial bidez, erakunde publikoaren edo LANBIDEren bidez, edo enpresen erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez

#### **B) Prestakuntza osagarria**

Orohar, instalazio- azpiegitura-obra publikoekin, edota bereziki, hondakin kudeaketa-ingurumen zerbitzuekin lotutako instalazio-azpiegitura-obra publikoekin zerikusia badu soilik izango da baloragai prestakuntza edo formazioa. Beti ere, behar bezala egiaztatuta badago, dagokion ziurtagiri ofizial bidez, erakunde publikoaren edo LANBIDEren bidez, edo enpresen erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez

### **6.3.-Balorazio-irizpideak (100 puntu, gehienez).**

Lehenik, **Curriculumaren azalpena** baloratuko da **25 puntuz**, gehienez, ondorengo irizpideen arabera:

1. Orohar, bere burua aurkeztean eta bere ikasketa-eta lan ibilbidean zehar ikasitakoa eta egindakoa koherentziaz eta ordenatuki adieraztea.
2. Berariaz, instalazio edo azpiegitura zein obra publikoen arloan, enpresei edota Administrazio publikoei emandako zerbitzuak aholkulari gisa edota enpresetako edo Administrazio publikoetako langile-teknikari gisa egindako lanak zehazki azaltzea ( beti ere, behar bezala egiaztatuta badago, dagokion ziurtagiri ofizial bidez, erakunde publikoaren edo LANBIDEn bidez, edo enpresen erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez).
3. Bere ibilbide profesionalean egindako lanak eta eskainitako lanpostuaren arteko lotura edo zerikusiak azpimarratzea, argi erakutsita eta frogatuta gelditu dadin eskaintzen den lanpostu honen zereginak ondo ezagutzen dituela.

Bigarrenik, **MEREZIMENDUEN balorazioan**, batetik, **lan eskarmentu gehigarria** (urtebetetik goragokoa) baloratuko da, instalazio- azpiegitura-obra publikoekin, orohar, edota hondakin kudeaketa-ingurumen zerbitzuekin lotutako instalazio-azpiegitura-obra publikoekin zerikusia badu ( beti ere, behar bezala egiaztatuta badago ziurtagiri ofizial bidez, erakunde publikoaren edo LANBIDEn bidez, edo enpresen erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez) ( **50 puntu gehienez**). Bestetik, **formazio edo prestakuntza osagarria (master edota graduondokoak)**, orohar, instalazio- azpiegitura-obra publikoekin edota bereziki, hondakin kudeaketa-ingurumen zerbitzuekin lotutako instalazio-azpiegitura-obra publikoekin zerikusia duena. (**25 puntu, gehienez**).

#### **6.4.- Hautaketa-mahai edo organo teknikoa**

Elkarrizketa, burutuko dute Udal Elkarteko ondorengo enplegatuek:

- .- Hondakin kudeaketa-ingurumen arloburuak, edo bere ordezkokoak,
- .- Hondakin bilketa zerbitzuko teknikariak edo bere ordezkokoak
- .- Prebentzio teknikariak, edo bere ordezkokoak
- .- Idazkari-kontuhartzaileak edo honek izendatutako ordezko batek,.

11/2022 legearen 81.10 artikulua arabera, epaimahaiaren edo hautaketa-organoko teknikoaren erabakia loteslea izango da izendapenak egiteko eskumena duen organoarentzat, hots, Urola Kostako Udal Elkarteko Lehendakariarentzat.

#### **6.5.- Emaitzak: hurrenkera eta lan-poltsa**

Aurkeztutako hautagaien artean, hurrenkera bat jarriko da. **Orotara, gainditutzat emateko gutxienez 50 puntu eskuratu beharko dira,**

Gutxienezko puntuazio hori lortu duten hautagaiekin lan-poltsa bat eratuko da, ingurumen-hondakin kudeaketa arloko instalazio-azpiegitura-obra publikoen gaietarako aholkularitza lanak egiteko, interesa azal dezaketen beste enpresa edota Administrazio publikoentzat eskuragai egongo dena, hautagaiak horretarako berariaz baimena emanaz gero.

#### **6.6.- Gutxi gora-beherako egutegia**

- Izen emateko epea: 5 lan egun, iragarkia Urola Kostako Udal Elkartearen web orrian argitaratuz geroztik edo LANBIDEN iragarkia jarriz geroztik, bietan, azkena den egunaz geroztik.
- Izen emateko modua: LANBIDE bidez
- Elkarrizketa egiteko epea: urriaren bigarren hamabostaldian zehar. Baldintzak bete dituen hautagai bakoitzari egun eta ordu zehatz baterako deialdia egingo zaio.
- Emaitzak argitaratzeko gehienezko epea: 2025eko azaroaren lehen astea
- Emaitzak argitaratzeko modua: Urola Kostako Udal Elkartearen web orrian.

2025eko urriaren 10ean,

<b>Sinatzaila</b>	UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LEHENDAKARIA Ion Arozena Eizagirre
<b>Firmante</b>	PRESIDENTE DE LA MANCOMUNIDAD DE UROLA KOSTA
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4Z906.YT9u">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4Z906.YT9u</a>
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu / <i>Este documento se ha firmado electrónicamente, para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR</i>	
	